



GENERO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

Gaiaren inguruko ikuspegi desberdinak elkarte eta erakunde desberdinen eskutik > 4-8

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2007-11-25**

VURTEA 1297. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ONGI ETORRI TITIRIJAIRA

TOLOSA Atzo inauguratu zuten aurtengo Titirijai, txotxongiloen festa erraldoia, jendetzaren artean

GAUR Herriko bost txokotan ikuskizunak izango dira, arratsaldean; Aranburuko erakusketa ere ikusgai dago 10



Aranburu jauregian Txekiar Txotxongiloen Leihoa erakusketa inauguratu zuten. I. TERRADILLOS



**Ikaztegietan, Euskal
Jai arrakastatsua 11**



40
emozio urte

**Jaialdi
berezia**

Usabal kiroldegia (Tolosa)
Abenduak 1, larunbata
Arratsaldeko 7etan

6 € helduak
3 € ikasleak



Laskorain Ikastola

ERASOEN AURREAN, EZ ITXI BEGIAK



AMASA-VILLABONAKO UDALA

AZAROAK 25

**EMAKUMEARENGANAKO INDARKERIAREN
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Euskararen inposaketa



» **Uzturretik**

Joxi Imaz

Badakizue dagoeneko Estatu Batuetako *The Wall Street Journal* egunkariak euskarari buruzko artikulua bat argitaratu duela. Mundu mailan erreferentzi nagusietako bat bezala erabiltzen den egunkariak kazetariak zioenez, gure hizkuntza pobrea da, ez du balio gure garaiko gizarte mo-

dernorako. Eta hala ere, euskaldunok gure hizkuntza inposatu nahi omen dugu. Jakin dugu lehenengo kritika erantzuten (euskarak gairontzeko hizkuntzek balio duten gauza guztietarako balio du, ez da hizkuntza pobrea bat), baina bigarren kritikari dagokionez (euskaldunok euskara ikastera behar-tzen ditugu euskara ez dakitenak), beti bezala zalantzak sortu dira. Batzuk diote inposaketa ez dela ona, ez duela funtzionatzen... Euskaldunok ez dugu ahaztu behar, Espainian bizitzeko beharrezkoa dela gaztelania jakitea, eta Frantzia bizitzeko frantsesa jakitea, eta beraz ez dela arraroa Euskal Herrian bizitzeko euskara jakin beharra. Egia da ikuspegi etikoa baretik, jendea behartzea behin ere

ez dela ona, baina bestetik gogoratu behar dugu nola iritsi garen egungo egoerara (Euskal Herrian bizi garen hiru miloi biztanletik 600.000 bakarrik gara euskaldunak): mendeetako gaztelania eta frantsesaren inposaketaren ondorioz. Izan ere, errealitatean, guk hala nahi ez izan arren, hizkuntzen arteko harremanak ez dira demokratikoak. Boterea eta politika dago atzean, eta Estatu handi eta boteretsuek euren hizkuntza inposatzen diete txiki eta ez hain boteretsu direnei (hau hobeto ulertzeko begiratu Xamarren *Euskara jendea* eta *"Orekan"* liburua).

Norbaitek erantzungo du beste-ek gaizki egin izanak ez duela esan nahi guk ere orain gauza bera egin

behar dugunik. Baina zer gertatu da euskara ikastea norberaren borondatearen esku utzi denean? Espainia eta Frantzia barnean bizi garenez, jendea lasai bizi daitezkeela gaztelania eta frantsesez, eta gehiengoak ez duela euskara ikasi. Horregatik, Donostiako ospitalean oraindik langileen gehiengo handi batek ez daki euskaraz, eta horregatik Tolosaldeko herri txiki-tako ume euskaldunak hara joaten direnean ez diete ulertzen erizainei.

Baina garbi eduki behar duguna da beraiek direla errespetu falta adierazten dituztenak, eta beraiek direla lotsatu behar dutenak. Eta ikasi nahi ez badute, ikastera behar hartzeko eskubidea daukagula, garbi jartzen baitu pasilloan ume-ak eskubidea dutela ongi tratatuak izateko eta euren hizkuntzan hitz egiteko. Gaztelania hutsean dagoen poster batean.

E Eztabaida info

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da gaur. Ia egunero genero indarkeriarekin loturiko erasoen berri irakur dezakegu. Non dago arazoa?

■ **Pello.** «Gizartearen antolaketan dago arazoa nire ustez. Halere askotan gizonetako arazoa dugula diote baina emakume asko eta asko daude trabak jartzen dituztenak eskubide berdintasunera iristeko. Antolaketa modua aldatu behar da bertikala da horizontala orde».

■ **Maite.** «Agian Pellok arazoa du esatean emakume askok trabak jartzen dituztela, baina uste dut hori lehen izaten zela. Egun hori aldatuz doa, eta emakumeok ez dugu pentsatzen lehen bezala. Gaur egungo emakume gazteok, lehen ez bezala, ez gaude gizonetako mespretxuak aguantatzeko. Gainera, gaur egun, babes handiago dugu gizarte orohar, beraz, ez dugu beldurtuta egon behar gauzak salatzerako orduan. Tartu txarra izan den kasu baten aurrean berehal egin behar dugu emakumeok zer bait, batez ere, biktimari zein beste inori berriro gerta ez dakion».

E Inkesta info

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan eskualdeko nor ikusten duzu final handian?

- **Joseba Aburuza.** «Mendiluze txapelkun».
- **Iñigo.** «Nik ere uste dut Mendiluze izango dela final handian. Gehiago esango dut gainera, uste dut finala bera ere irabaz dezakeela, eta asko gustatuko litzaidake».
- **Aiora.** «Nire ustez Irazuki merezi du dudarik gabe saria, bere umiltasunak bere bertsuak sintseritatez betetzen ditu eta naturaltasunak laguntzen dio bertsuak bapatean botatzen».
- **Iñaki.** «Ba, nik esango nuke Amaia Agirre finalena ariko dela, eta ongi gainera. Baina billabonatarraz gain, eskualdeko gehiago ere izango direla uste dut. Hori gustatuko litzaidake behintzat».

Irazu bakarrik	<input type="checkbox"/> %14
Mendiluze bakarrik	<input type="checkbox"/> %14
Agirre bakarrik	<input type="checkbox"/> %7
Hirurak izango dira finalean	<input type="checkbox"/> %36
Hiruetatik bi egongo dira finalean	<input type="checkbox"/> %29

A Argazki zaharra



1933an, Gure Txokoa banda

TOLOSA • Pasa den ostegunean Santa Zezilia eguna izan zela kontuan hartuta, Tolosako Gure Txokoa banda dakargu gaur TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARA. Argazkia 1933 urtean atera zuten, Gorosabelgo eskolatan. Zuzendaria Dionisio Mendia da eta identifikatu ditugun musikari gutxien artean daude duela hilabete hil den Pascual Garces (zuzendariaren atzeko bombardinoaren atzean, tronpeta-jotzailea), bere anaia Dionisio

Garces (goian, ezkeretik hasita hirugarrena, klarinete-jotzailea), Etxeberria (ezker ezkerrean, bombardino-jotzailea) eta Gabriel Urria (bigarren ilaran eskuin eskuinean, tronpeta-jotzailea). Banda honek Korreo kalea eta Kale Nagusiaren arteko pasabidean entseatzen zuen. Garai baten bazen beste banda bat Tolosan, Iruña izenekoa. Hauek baino zertxobait gazteagoak ziren. HITZA

Zer egun da gaur? Zergatik?

» Iritzia

Onintza Lasa

Tolosako Berdintasun zinegotzia

Gaur azaroaren 25 da. Gaur ere emakume askorentzat sufri-
mentu eguna izango da.

Zergatik? Gaur ere tratu txarrak pairatuko dituztelako.

Gaur behintzat gizarteak aintzakotzat hartuko ditu eta beren egoera salatu egingo du. Hala ere, tamalez, askotan, -gehiegitan esango nuke nik, -ahaztu egiten dugu emakumeenganako tratu txarrak egun badaudenik. Horre-

gatik, gaur bezalako egunak behar dira, emakumeenganako tratu txarren aurkako mezu irmoa zabaldu beharrean gaudelako.

Zergatik?

Honelako egoera baten aurrean ezin garelako ixilik egon. Emakume askok jasaten dutelako indarkeria fisikoa, psikologiko zein sexuala baina oso gutxi, ordea, salatzen dutelako, % 20 inguruk, hain zuzen.

Tolosa ez da salbuespena. Hemen ere salaketa kopurua goraka joan da azken urteotan; gaur egun 39 kasu daude irekita, aztergai.

Zergatik?

Gizonezko batzuek beren inguruko emakume bati edozer gauza egin diezaioketela uste dutelako. Uste okerra, benetan! Beren inguruko emakume horren aurka beren ahulezia osoa indarkeria moduan iraultzen dutelako.

Zergatik?

Bere maskulinitatea era okerrean ulertzen duelako. Botere terminoetan. Zenbat eta gizonago, orduan eta indarraren "jabe" handiagoa, edota alderantziz. Berdin da. A zer lelokeria!

Zergatik gaur, beraz?

Biziti den egoera hau gazteen artean ere errepikatzen delako. Hori

da gairik lazgarriena. Tratu txarren kopurua gazteen artean oso altua dela. Salaketen %40 inguru 35 urtez beherako neskek jartzen dituztelako. Eta egungo gaztedia etorkizuneko gizartea da. Beraz, alarma gorriak piztu behar ditugu ezinbestean.

Hori dela eta, gaur zer egun den gogorarazteko, konzentrazioa egingo dugu gaur Triangulo Plazan 19:30ean eta plazan dagoen eskultura zapi beltzez estalita egongo da. Estalita, gugandik gertu dauden infernuzko egoera asko bezala.

Garrantzitsua da elkarretartzea jendetsua izatea. Guztiok emakumeenganako tratu txarren aurka. Hau ez baita joko bat! Emakumeak errealak gara!

Emakumeon kontrako indarkeriari aurre egitea denon ardura da. Zuk zer egingo duzu?

» Iritzia

Maria Garzia, Oihana Lopetegi eta Eider Elduaien

Tolosaldeko Bilgune Feminista

Iritsi da beste behin ere azaroak 25, indarkeria sexistaren aurkako nazioarteko eguna, Bilgune Feministak salaketa eta mobilizaziorako eguna bezala ulertzen duena. Nazioarteko egun onek bere alde on eta txarrak ditu gure ustez, nazioarteko egun guztiak bezala. Batetik, aukera ematen du emakumeok, emakume izateagatik, jasaten dugun egiturazko indarkeria agerian uzteko. Baina bestalde, horrelako egunek itxurakeria eta zurikeriatik asko dute. Eta hor sartuko genuke instituzioen papera. Hurrutira joan gabe, gure udaletxeetatik urte guztian zehar agertu ez duten borondate politikoa egun honetan agertu nahi izaten dute, urte guztian lan egiten duen mugimendu feministaren parean jarri nahian.

Indarkeria sexistak bizirik dirau eta horretaz jabetzeko ez dago mundura begira jarri beharrik nazioarteko egun honetan. Euskal Herrian eta urrutira joan gabe,

gure eskualdean bertan, pasa den hilabetean bi emakume tratu txarrak jaso zituzten Zizurkilan eta Villabonan. Baina, emakumeon aurkako indarkeria ezin da soilik tratu txarrekin eta eremu pribatuaren ematen diren erasoekin lotu. Indarkeria sexista, maila handiagoan ala txikiagoan, emakume guztiok eta eremu guztietan pairatzen dugu. Ez soilik bikote arteko harreman pertsonaletan, baita eskolan, lantokian, kalean, parrandan, kartzeletan, komisaldegian... egitura patriarkalak bere isla du egunerokotasunean. Egitura honek bideratzen baitu gizonen eta emakumeen arteko harremanak jerarkikoak izatea eta ez, eskubide eta aukera berdintasunean oinarritzen direnak. Eta beraz, sexu arteko botere harreman horiek ahalbidetzen dute emakumeon aurkako indarkeria. Indarkeria fisiko zein psikikoa dena. Jazarpen sexistaren ondorio latzena erailketa da, baita tratu txarrak edota bortxaketa ere. Baina isilpean pasatzen diren beste hainbat eraso pairatzen ditugu emakumeok, eta ez horregatik besteak baino kezka gutxiago sortzen digutenak. Garrantzitsua da jazarpen oro identi-

fikatzea, horrela, eraso guztiak salatu eta ekidin ahal izateko. Emakumeok eskubidea dugu jendartearen esparru guztietan sufritzen dugun indarkeriarik gabe bizitze-ko.

Indarkeria sexista arazo sozial bat da, jendarte patriarkaletik datorrena, eta hau konpontzeko, benetako erantzun soziala eta sexuen arteko botere harremanen iraultza beharrezkoak dira. Emakumeon kontrako indarkeriari aurre egitea denon ardura da. Zuk zer egingo duzu?

Emakumei autodefentsarako deia egin nahi diegu. Aski da esan eta gure tresna indibidualak zein kolektiboak sortuz, beldurrik gabe, gure eskubideen jabe izanik, sistemak eragindako harreman jerarkikoei aurre egingo diegu. Jarreraren indibidual aktiboaz, gure autoestima landuz, emakumeok antolatuta eta denon artean posible delako, harreman berriak sortuko ditugu.

Instituzioei berriz arduraz joka dezatela eskatu nahi diegu. Neurri eraginkor eta integralak har ditzatela eta emakume erasotuei behar bezalako babesa eta aholkularitza zerbitzua eman diezaietela berea-

la. Prebentziorako dei berezia ere egin nahi diegu. Egungo egoerak erakusten baitugu gauzak ez direla aldatzen ari, eta belaunaldi berrien artean oraindik indarkeria sexistak bizirik jarraitzen duela. Instituzioek pausoak eman dituzte bai, legediak eta batzordeak sortu dituzte, baina betearazteko aurrekonturik gabeko legeak eta erabaki ahalmunik gabeko batzordeak. Indarkeria sexistak bizirik dirau, beraz, zer ekarri dute neurri hauek? Egoerak bere horretan jarraitzea, izan ere, arazoari erroetatik eusten ez zaion bitartean, partxeak jartzeak eta sintomei ekiteak, ez baitu benetako irtenbiderik ekarriko.

Amaitzeko esan, erasotzaileek ez dutela lekurik gure artean, jendarte ezin dituzte jarrera hauek barbestu, ezta konplize izan ere. Edozein motatako eraso eta jarrera matxisten aurrean gure gaitzespena azaldu behar dugu. Emakumeontzako espazio libreak sortu eta berreskuratu behar ditugu, non jarrera hauek ez duten lekurik izango. Beraz, erasotzaileei aurre egin eta salatu egin behar ditugu gure herrietan, ez ditugula nahi argi utziz.

Piztu alarma, autodefentsara!

Azken egunetako eguraldi hotza nabaritzen ari da azokan

Tolosa » Atzoko nobedade bezala, gardua aipatu behar da; datozen asteetan pazko loreak espero dituzte

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen goizeko lehenengo orduetan, eta pixkanaka, goiza aurrera zihoala, berotu egin zen.

Egun hauetako hotzak eta eguraldi aldaketak, eragina izaten ari da postuengan. Produktu batzuk agortu dira, tomateen edo eta ondoreen kasu, eta beste batzuk indartzen ari dira asko. Azak, azaloreak, bruselazak, romanesku azak, brokolia eta lonbarda aza puri purian daude, eta hauekin, porruak, azenarioak eta azelgak. Nobedade bezala gardua aipatu behar dugu; 4 eurotan saldua, datozen egunetan arrakasta handiko barzakia izango dela esan dezakegu.

Datozen asteetan pazko loreen agerpena espero dugu. Hurrengo asteburuan ez baldinbada, hemendik bi larunbatera izango da.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Landina	10,00	-
Ziklamena	5,00	-
Xarbota	4,00	6,00
Txinatar kraelina	2,50	-
Siemprevivas	6,00	-
Gerbera	12,00	-

Bertako produktak

Ziza horia	20,00	-
Gamuza	14,00	-
Errezil sagarra	1,50	-
Intxaurra	2,50	4,00
Gaztaina	3,00	-
Urrak	2,00	3,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Ahuntz gazta	3,00	-

Kultur Elejiraren azken ekitaldian, zezenak

BALIARRAIN » Kultur Elejiraren azken ekitaldia atzo egin zen, eta bertan, haurrak izan ziren protagonista. 17:00etan Ani Martinezekin esku lanak egin zituzten, sormena lantzeko asmoz. Ondoren, zezen buru baten aurretik ibili ziren haurrak korrika frontoian, entzierro batetan egongo balira bezala. ASIERI MAZ



Txikienak gustura pailazokerietan

ADUNA » Kultur Astearen baitan, atzo arratsaldean hitzordu berezia izan zuten etxeko gaztetxoek, izan ere, Adunako pilotalekuan pailazoan emanaldia izan zuten. Gaztetxo eta guraso asko gerturatu ziren hauek ikustera. Ondoren, barrikoteak, taloak, gaztainak eta ardoa dastatzeko aukera ere izan zen. I. TERRADILLOS





Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egurenaren harira hainbat ekintza gauzatu dituzte aste honetan, gazteak sentsibilizatzeko asmoz. IMANOL GARCIA

Berdintasunaren gaia erronkatzat hartuz batzordea sortu du Udalak

Gizartea » Protokolo bat eratzeko, emakumeen kontseilua eta jabekuntza eskola sortzea ditu helburu, besteak beste batzordeak

ESTI EZEIZA

Tolosako Udalean, duela hilabete gutxi Berdintasun batzordea sortu zen. Batzorde horren buru da Onintza Lasa zinegotzia, eta bertan lanean dihardu Josebe Iturriotz teknikariak eta Jokin Bildarratz alkateak. Berdintasun batzorde honen helburua «Tolosan berdintasuna jorratzea eta erronka garrantzitsu bezala lantzea da». Tolosa Berdinsarea osatzen duten 36 Udalen barruan dago. Sare honen baitan egoteko, Udalak Berdintasun plan bat izan behar du.

Batzordearen helburuak

Berdintasun batzordeak helburu ugari ditu datoen hilaibetearako. Alde batetik, kontseilu bat eratu nahi dute. Honek herriko jendea bilduko luke. Beraiek berdintasunaren gaia jorratuko lukete, proposamenak bilduz eta informazioa Udalarri emanaz. Hau, batik batik emakumei zuzenduta dago. Emakumeen gaiak, partaidetza... sustatu eta jorratuko lituz-

kete kontseiluan. Josebe Iturriotz, teknikariaren esanetan, «hau oso bide ona da, beraien nahiak jasotzen baititzakegu, eta gero horren arabera ekintzak prestatu».

Batzordearen beste proposamenetako bat Jabekuntza Eskola da. Hau emakumei zuzendutako eskola bat da. Hemen gai ezberdin ugari landuko litirake: literatura, historia... baina denetan ere emakumea erreferente gisa hartuz. Iturriotzek aipatu bezala, «ema-

Sentsibilizazio astearen baitan elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean, Triangulon

Tolosako Ertzaintzaren egoitzan 39 indarkeria kasu irekita daude, 2004. urtetik hona

kumei erreferenteak falta zaizkigu». Jabekuntza eskola honek emakumei baliabideak eskaintzen dizkie, «boteretzeko».

Azkenik, Iturriotzek azaldu bezala «indarkeriaz hitz egitean, protokolo bat egin behar da». «Mila sentsibilizazio kanpaina egin arren protokolorik ez badago ez du gehiegi balio» gaineratzen du.

Sentsibilizazio kanpaina

Berdinsarearen aurtengo sentsibilizazio kanpaina 13-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Psikologo batzuek diotenaren arabera, «adin hori berez gogorra da, gainera identitatea orduan eratzen da». Hala, identitate horren oinarrian dauden balioak dira maskulinitatea eta feminitatea. Honenbestez, beraien burua sortzeko garaian, erabiltzen dituzten baliabideak estereotipoak dira. Hauek, telebista, Interneten, inguruan... daude.

Josebe Iturriotzek azken hilaibeteetan, gazteekin egindako eskoletatik ondorioztatu du, «diskriminazio honetan, neskek eta mutilak toki ezberdina dute». Neskek ulertzen dute beraien egoera. Ikerketek diote gainera, adin horretan mutilak baino neska gehiagok egiten dutela bere buruaz beste, eta depresioetan errazago erortzen direla. Hala, zerbait azalduz gero, errazago ulertzen dute. Mutilen kasuan berriz, maskulinitasuna balio on bat bezala barneratzen dute, eta zailagoa da horri kritika egitea. Iturriotzek dio, berak nerabeei ematen dizkien hitzaldiekin kontrastatzen dela, gazte hauek, ohartu gabe irensten dituztela estereotipoak.

Asteko ekitaldiekin amaitzeko, gaur, 19:30ean elkarretaratzea egingo dute Triangulo plazan.

Bestalde, herriko eskulturak jaipi beltz batez estaliko dituzte.

Tratu txarren aurkako legea

Josebe Iturriotzek esan bezala, «Berdintasuna iristean, uste zen indarkeria kasuak murriztu egingo zirela, baina datuek erakusten dute gauzak ez direla horrela izan». Duela urte gutxi, indarkeriare aurkako legea egin zen Espainiar estatuan. Hala, egun, 2004 urtearen aurretiazko datuak ez dira kontuan hartzen. Ertzaintzaren artxiboetan, azken lau urteetakoak bakarrik aurki daitezke. Tolosari dagokionez, Ertzaintzan, 2004tik hona tratu txarren inguruko 39 kasu irekita daude oraindik. Hau da, salaketa horien jarraipena egiten ari dira.

Dena den, zenbait kasutan, tratu txarrak jasotzen dituztenek, Ertzaintzara jo beharrean, Udaleko gizarte zerbitzuetara jotzen dute. Hemen, laguntza psikologikoa eta abar eskaintzen dizkiete. Datuen arabera, gehiengoak nahiz eta gizarte zerbitzuen aurrean laguntza eskatu, ez du Ertzaintzaren aurrean salatzen. Horren aurrean, Josebe Iturriotz Berdintasun teknikariak dio, «tratu txarrak jasaten dituen edonork salatu egin behar duela, bestela ez baitu ezertarako balio. Bera babesteko mekanismoak ez dira martxan jar-

tzen, pauso hori ez badu ematen erasotua denak».

Egun, gero eta emakume gehiagok salatzen dituzte indarkeria kasuak, «honek zerbaitetarako balio baitu», hau da, lehen egiten ez zitzaion bezala, egun jarraipena ematen zaio.

Zenbait datu

Orohar, indarkeriaz hitz egitean, kanpokoena gauza dela uste du jendeak. Baina datuek adierazten dute gauzak ez direla horrela, eta uste baino gertuago dagoela arazoa. Duela egun gutxi Euskal Herriko hedabide batean argitaratu-

Egunean 8 emakumek salatzen dituzte tratu txarrak, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

Salaketak jarri dituztenen kasuetan, %42ak, 32 urte baino gutxiago ditu

tako datuen arabera, egunean zortzi emakumek salatzen dituzte tratu txarrak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Guztira, 3.017 emakumek salatu zituzten tratu txarrak, eta horietatik ia erdiak (%42) emakume gazteak ziren, 32 urtetik beherakoak. Erasoen %75,2a etxean gertatu ziren, bikotekideek emakumei eraso eginda. Erasoen ondorioz, bost emakume hil ziren iaz Euskal Autonomia Erkidegoan. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 23 larri zauritu ziren, eta beste 1.074 arin. Iaz, 256 salaketa izan ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, gehienak sexu erasoak. Lau salaketatik hiru 32 urtetik beherako emakumeek aurkeztu zituzten.

Zer egin behar da tratu txarrak jasanez gero?

Batetik, 112 zenbakira deitu. Bestetik, arazoa konfidantzako pertsona bati kontatu. Lesio fisikorik, edo psikikorik izanez gero, osasun etxe batera joan eta eskatu mediku txostenaren kopia. Lesiorik ez badu erasotua, udalerriko gizarte zerbitzuetara joan daiteke, eta han esango diete nola eskuratu doako laguntzak: psikologikoak, juridikoak... Babesa behar izanez gero berriz, babesteko agindua ere eska dezake gizarte zerbitzuetan, epaitegietan...

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

ESTHER ANTERO › Acovidem elkarteko lehendakaria

Gizartea › Acovidem-eko lehendakaria eta Tolosako osasun etxeko medikua da Esther Antero; etxeko indarkeriaren inguruan biktimen ikuspuntua ematen du



I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Esther Antero (Donostia, 1962) Acovidem elkarteko lehendakaria da. 2006ko martxoan sortu zen Acovidem, hau da, EAE mailan Etxeko Indarkeriaren Aurkako eta Adingabeen Defentsarako Elkartea. Lanbidez medikua da eta Tolosako osasun etxean egiten du lan.

Zergatik sortu zenuten Acovidem elkartea?

Biktimak biltzen zituen elkarterik ez zegoen eta Emakundeko zuzendaria den Izaskun Moyuak animatu gintuen pauso hori ematera. Elkartearen bidez instituzioen eta administrazioaren aurrean bitartekari izan gaitezke, edozein arazoren aurrean banaka baino elkarte bezala agertzeko. Ikusten genuenez biktimek bizitzen zutenen orokorrean arazo berdinak zirela, pentsatu genuen elkarte sortzea. Bestalde, sortu genuenok ibilbide bat badugu eta beste emakume batzuk galduagoak egon daitezke. Elkartearen bidez jakinarazi nahi dugu, momentu batean dena beltz ikusten badute ere, hortik atera daitezkeela eta indartsu gainera. Ez da bide erraz bat, baina merezi du pauso hori ematea.

Zein da zuen lana?

Batetik, egoera horretan dauden emakumeentzako informazio puntua eta beraiei entzungo diena izatea. Beraien egoeran daudenek entzungo diete, orain arte gertatzen ez zena. Bestalde, gure artean, kasuak azaltzerakoan, konturatzeko ginen zailtasun berdinak genituela. Bakoitzak bere borroka eramaten genuen eta egia esan, pixka bat antzua izaten zen. Beraz, borroka batera eginez gero, modu erosoagoan egin ahal izaten genuen lan hori. Bestalde, lehenengo helburua kontzientzia soziala sortzea da. Tratu txarren gaia oso indartsua da, edonork jasan edo ondoan izan ditzake.

Egian esan, aurriritzi ugari daude horren inguruan.

Jendeak klixe ugari ditu: tratu txarrak jasaten dituen emakumea mediorik gabekoa dela, ez dakiena bakarrik moldatzen eta gizonezkoa alkoholikoa eta drogazalea duela. Klixe horiek apurtu egin behar dira. Tratu txarrak edozeinek jaso ditzake. Ez gara moldakaitz batzuk edo ez jakin batzuk. Gure bizitza aurrera ateratzeko gai garen pertsona arruntak gara.

Zer nolako laguntzak jasotzen dituzte?

Egun gero eta medio gehiago jar-

ren ari dira, gutxienez ekonomikoki, egoera horretatik ateratzeko eta gero zure modua aurkitzeko bizitza aurrera ateratzeko. Baina esan beharra dago ez daudela uste ohi den bezainbesteko laguntzak. Badirudi, tratu txarrak sufritzen badituzu alfonbra gorri bat jartzen dizutela eta ez da horrela. Badaude emakumezko batzuk independentzia ekonomikoa izan arren, dependentzia emozionala dutenak eta medio psikologikok behar dituztenak. Badaude erabakia hartu duten emakumeak baina autonomia gehiago behar dutenak

«Orain arte ez bezala, elkartearen bidez egoera berdinean daudenek entzuten diete biktimei»

bai ekonomikoki edo familiaren aldetik.

Araoz berdinak topatzen dituzuela diozu. Zeintzuk dira?

Lehenengo zailtasuna jasaten genuen sinesgarritasun urria izaten zen. Kontatzen duzunean zer gertatzen zaizun, beldurra duzula zerbait gertatu daitekeelako eta salaketa jartzen duzu, benetan zaila da sinistua izatea. Ez da erraza frogak erakustea eta batzuetan zaila da zure kasua azkar aintzat hartzea sinesgarritasuna ukatzen ditzutelako. Esaten zenuenean beldurra zenuela, arriskuan zeunde-

la, zerbait serioa gertatzea posible zela, normalean exajeratuztat hartzen zintuzten. Orain genero indarkeriaren legea dela eta, epaileak azkarrago aritzen dira. Bestalde, epaileak azkarrago badaude ere, askotan baldintza desegokitan egiten dituzte. Emakumezkoa, oraindik izututa dagoena, deklarazioa oso urduri dagoela egiten du, gaizki prestatuta, askotan gertaeran bakarrik zentratuta eta beraz ohikotasuna ezkutuan geldituz. Eta oso garrantzitsua da ohikotasuna, ezberdina baita gertaera jakin bat izatea edo tratu txarrak ohikoak

«Haurrek begiak eta belarriak dituzte. Beraien konklusioak ateratzen dituzte»

izatea, azken horrek jarrera bat erakusten duelako. Prozesu luzeetatik arinegi jokatzerara pasatu gara. **Zer uste duzu erasotzaileek izaten duten zigorrore buruz?**

Zaila da kartzela zigorra duen delitu bat izanik, benetan kartzelara joatea. Eta joaten bada erraza da bi egunetan ateratzea, hainbat tratamendutara heltzen delako. Bitartean, zuk ahal duzun bezala konpondu behar duzu. Gainera, batzuetan etxek aldatzea aholkatzen dizute. Baina, ez diote ba beste iri eman urrutzeko agindua? Badirudi erakundeetatik batzuetan

ihes egitera bultzatzen zaituztela. Baina ez, nik nire ingurunean gelditu behar dut eta ikusi beharko dugu nola babesten nauten bizitza normala egiteko. Bestalde, berdintasuna eskatzen dugu zigorretan. Erasoa kutzazain bati egiten badiotzu, hau da, makina bati erasodik izututa dagoena, deklarazioa oso urduri dagoela egiten du, gaizki prestatuta, askotan gertaeran bakarrik zentratuta eta beraz ohikotasuna ezkutuan geldituz. Eta oso garrantzitsua da ohikotasuna, ezberdina baita gertaera jakin bat izatea edo tratu txarrak ohikoak

Haurren egoera ere aztertzen duzue elkartearen. Horri buruzko informazioa gutxitan azaltzen da.

Zuzenean erasoak jasan dituzten haurrak badira. Haurtzako bisita erregimenak zehazten dira,

«Ea hezkuntzarekin arazoa bideratzen den, baina egun zigor-neurriak ere hartu behar dira»

baina haurrek ez dute joan nahi, erasotzak izan direlako edo gauza asko ikusi dituztelako. Baina epailearen aginduz joan beharra dute. Beraz, arazo askorekin eta zentzugabekeria batekin aurkitzen zara. Alde batetik zure seme-alabari esaten diozue joan behar duela eta saiatu behar zara ahal den errazen egiten, ezer ez dela pasatuko eta horrelakoak esanez. Eta berak, erasoak jasan dituen izan daiteena gainera, galdetzen dizu nolatan bidaltzen diozun bere ama izanik tratu txarrak eragin dizkion pertsonarengana.

Haurrek beraien ikuspuntua ere izango dute.

Haurrek begiak eta belarriak dituzte. Beraien ikuspegia dute eta beraien ondorioak ateratzen dituzte. Eta hori, ematen duenez, ez da ikusten. Erasoa zuzenean jasotzen ez badute ere, gertaera oso larriak ikusi dituzte eta beldur handiarekin joaten dira bisitetara. Askotan, gainera, esaten da guk sartzen diogula beldur hori. Badute beraien irizpidea, ez dira tontoak. Eta normaltasun batean daudela esaten denean, errealitatea ez da hori. Indarkeriazko jarrera bat ikusten dutenean, egoera lasaitzen saiatzen dira, ez normaltasun batean daudelako, askotan euren burua defendatzeko.

Zure kasuan, orain espetxean dago erasotzailea.

Espetxetik ateratzen denean, berriro hasiko da dena. Orain atsedena da, gero, espetxetik ateratzen denean, pilak berriro kargatu beharko ditugu. Nik uste dut egoerara egiten zarela. Horrelako gauza bat gertatzen zaizunean, nolabait denak balio bikoitza hartzen du. Tentsioa zaude, zeure burua babestu ahal izateko, baina aldi berean bizitza arrunta egiten duzu eta horri sekulako etekina ateratzen diozu. Bizitzen duzuna betebetean bizitzen duzu.

Badirudi indarkeria honen inguruan gizartearen kontzientzia handitzen ari dela. Hala deritzozu?

Nik uste dut gizartea aldatzen ari dela, baina gehiago aldatu behar du. Aldaketa sozialak beti dira motelak. Instituzioetatik eman behar diren pausoei dagokionez, ematen dituzte, asko oso onak, baina hutsuneak ere badaude hainbat gaitan. Hainbat atal dituen arazo bat denez, askotan ez da hain erraza modu jakin batera bideratzea. Hala ere, hainbatetan badugu irudipena pauso batzuk jakin gabe ematen direla. Zentzu horretan, faltan ikusten dugu planifikazio bat, hainbat sailakoak elkarrekin eseri ondorena aterabarekoa. Errekurto gehiago ere bideratu behar dira. Nahiago genuke etorkizunean arazoa hezkuntzaren bidez bideratu ahaliko balitz, baina egun hezkuntzaz gain zigor-neurriak hartu behar dira.

Zer mezu eman nahiko zenukete elkartetik gizarteari?

Gizarteari esango nioke ez dezala pentsatu beste baten arazoa denik. Agian, ezagutzen duzun jendeak izan dezake arazoa. Esango nioke ere tratu txarrak jasotzen dituen emakumeari laguntzeko. Emakume asko daude hainbeste aldiz zanpatuak izan direnak, ezen autoestima lurrean dutela eta ezin dutela bakarrik ezer egin egoera horretatik ateratzeko. Garrantzitsua da, beraz, gizarteak babestu dezala, pertsona hori adoretu dadin. Eta noski, baten batek bere inguruan arrisku handiko egoera bat ikusten badu, aurrera hartu dezala.

ESTEREOTIPOEN ADINA

Gizartea » Berdinsareak, indarkeriaren gaiari lotuta martxan jarri duen aurtengo sentsibilizazio kanpaina 13-18 urte artekoie zuzenduta dago

ESTREZBA

Tolosa Berdinsarea osatzen duten 36 udalkeuren artean dago. Aurtengo indarkeriaren gaiari lotuta, kanpaina berri bat jarri dute martxan, eta hasi, 13-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Ekimen honen helburua, adin tarre horretako nerabeak sentsibilizatzeko da. Izan ere, emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria neska eta mutilen sozializazio desberdinean dagoela usate dute eta desberdintasun hori arazotuta egiten dutela ber-

txakeriaren legitimatze prozesuak, gizarte zein kultur mailakoak izan.

Joan den astean zehar gauzatuak ekintzen baitan, Josebe Iturrizor, Udaleko Berdintasun Teknikariak, hitzaldi batzuk eman zituen Orivez eta Laskorain ikastetxeetan. Honez gain, gazte txo honak bereziki Triangulokoan gauzatuak olatzaldietan hartu zuten parte.

Inurritzek umirik hona egindako antzeketaren ondorio gisa azal-

du zumez, «gazteen artean berdintasun kultura hasierak usate bazuten ere, bazezatu diena da, adin horretan estereotipoak oso markatuak daudela eta oraindik lan asko dagoela egiteko. Berak, jolasez bidez eta zeharkako bideak erabiliz, gazte hauek penaltzatzen dutena aztertzen du, ondorioztatuz, oraindik ere lan handia dagoela egiteko berdintasunerako bidean.

Aste honetako ekintzekin baitan, bereziki emakumeenganako indarkeriaren inguruan egunkarietan atararako albisteak Triangulokoan jentilakoa eskolotik zuzendutako zuzen. Hori egiten ari zirenean bitartean, hitzakokoei inkesta bat egin zieten lan horretan ari zirenen gaitzeko batak.

» INKESTA

- 1. Nolakoa izatea gustatuko litzaizuke zure bikotea?
- 2. Norberaren iburari, nor?



«Bikoteak berak erabakiko du zer jantzi nahi duen»



«Mugikorrek mezuak irakurriko nizkioke agian»

ematen dio garrantzi gehien? Eta bikoteak ematen? 1. Bikotearen esangoa al zenieke zer jantzi behar duen, eta mobilak kontrolatuko al zenieke?

Oier Arruabarrena
DBH3 MALAKO KASEA

- 1. Ez oso aliaua, beltzarana. Jatorra eta berarekin hitz egin ahal dene.
- 2. Neskek garrantzi handiagoa ematen diote norbere iburari. Kaleratutako gehiago prestatzen dira. Besteak, neskek gehiago begiratzen dute mutuek zer nolako arropa daraman.
- 3. Ez berak ikusiko du nola jantzi nahi duen.

Maiaren Lopez
DBH3 MALAKO KASEA

- 1. Adarra, ederra, begi politak dituenari, jatorra eta buruarekin penaltzatzen duena.
- 2. Neskek, mutuek ez diote horretako garrantziarik ematen. Bikotearen kasuan, mutuek, hasieratik jantzi gehiago begiratzen diote.
- 3. Ez berak nahi duen bezala jantzi da. Mugikorrean mezuak irakurri, agian bai.

Zizurkilgo Udala

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunarekin bat egiten dugu

idealista.com

zure etxea aurkitzea umeg jolasa baino ez da doako iragarkiak partikularrentzat

Txoi! Kontrolatzen?

Azaroak 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

BERDINTASUNA

TOLOSALDIO ET ALIFAZALDIO HITZA



«Jende aurrean ederrago egoteak gehiago arduratzen gaitu neska»

ARESOKO UDALA

Indarkeria generikoaren aurkako nazioarteko eguneari

Eliza kalea z/g • 948 51 03 27

Errioxa

2 eta 3 egoletako apartamentuak urbanizazio pribatuaren pabilo eta gurekarekin, Garaje ibia eta sukalea jama - 120.000€tik (20.000.000ptatik)

Lizardi higiezin zerbitzuak

Samaniego kalera 1 solairu artekoa - Tolosa - ☎ 659 81 75 05

Ainhoa Martínez
DBH3 MALAKO KASEA

- 1. Sentimenduetatik dituen mutua izan behar du. Edera, buruarekin penaltzatzen duena eta ez beste gauza batzuekin eta horretako gauzak.
- 2. Neskek garrantzi gehiago ematen diote gure kanpoko iburari. Jende aurrean ederrago gaituzten zaigu, eta gehiago arduratzen gaitu, mutuek gehienek, berriz, ez zatez arduratzen, berriak, hori. Bikotearen kasuan berdin, guri gehiago inporta zaigu kanpoko iburari.
- 2. Mugikorrek mezuak eta ez nizekioke begiratu. Konfiantza badaukagu elkarrengan, ez dago zertan begira. Arropari dagokionean berri, berri gaituzten baxio nola jantzen den, niri ere berdin zait. Norberak ikusi behar du hori.

POLICLÍNICA GIPUZKOA, BETI AURRETIK.

Policlínica Gipuzkoan Idrogo bokazioa dugu. Hori dela eta, kiurlogerari berearen gure zerbitzuari beste bultzada handi bat eman diegu.

Beraz gure enikaketa eta protokoloak ahalik eta gehien optimizatzeko aukera izango dugu, gure erantun-balabide gurtiak eta gure gaitzeki zuzendutako arreta sustatzeko sortu baita da.

Policlínica Gipuzkoako kiurlogerari berearen gure osasun zerbitzua sendotuz, osatu eta hobitu egiten du.

Beste behin, Policlínica Gipuzkoa, zerbitzu mediko pribatuko berritu da, bai Gipuzkoan, bai Euzkarian ere.

POLICLÍNICA GIPUZKOA «BURUGALDIA-ERAKIN BERRIA»

9.000 m² gehiago

BERNIA HIGIEZIN ZERBITZUARI

INTERAKTIBO 12 OFIZIARI-EGIA
2 ERNUTE-EGIA, 03/07/2010-03/07/2010
2010/07/24 BELA
ANEXOSAK INBIBIDU EGONERAKO 15 POSTU
10 BELAKO EGONERAKO 500TALEA



«Orohar, neskek garrantzi gehiago ematen diote iburari»

Andoni Elola
DBH3 MALAKO KASEA

- 1. Jatorra izan behar du nire bikoteak, eta konfiantza eman behar di.
- 2. Neskek garrantzi gehiago ematen diote beraien iburari faskoari. Hala ere, badaude norberaren iburaz eskio arduratzen diren mutuek ere. Bikotearen kasuan berriz, neskek garrantzi handiagoa ematen diote nire usiez honet zer iburari duen.
- 3. Bakoltza nahi duen bezala jantzen da eta norberak ikusiko du. Nik ez nizekioke neska lagunari nola jantzi behar duen. Mugikorrean kasuan berriz, ez nizekioke kontrolatuko.

POLICLÍNICA GIPUZKOA

más para tu salud
zure osasuna, gure ardura

www.policlinicagipuzkoa.com

TEL.: 943 002 800

E Elkarrizketa

EIDER ELDUAIEN ETA OIHANA LOPETEGI » Bilgune Feministako kideak



ESTI ZEIZA

«Sexuen arteko harremanetan iraultza eman beharra dago»

Gizartea » Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira, elkarretaratzera deitu dute gaurko 19:00etarako, Triangulo plazan

ESTI ZEIZA

Tolosaldeko Bilgune Feministako kide dira Eider Elduaian (Tolosa, 1982) eta Oihana Lopetegi (Ibarra, 1979). Beraiek egiten duten lanaren inguruan eta jendartearen gaur egungo egoeraz mintzatu dira. Bestalde, gaur 19:00etan Triangulo plazan egingo den elkarretaratzera joateko deia luzatzen diete herritar guztiei.

Zertan datza Bilgune Feministaren lana?

Oihana Lopetegi: Alde batetik, kontzientzia feminista sortzean datza gure lana. Gaur egungo jendarte honetan, badirudi berdintasun formal batera iritsi garela. Hau da, legeak emakume eta gizonen artean berdintasun formal bat ez duela, lan mundura irten gara, eskolak ere mixtoak dira... Emakumeak zapalduak gaudenaren ideologia jada ez dago. Lehen, zapalketa askozaz ere bortitzagoa zen, orain sotilagoa da. Beraz, alde batetik kontzientziazio lan hori egiten dugu, jendea ohartu dadin oraindik zapalduak gaudela, non, emakumeak erailak izaten diren. Bestalde, emakumeon lana ez da kontutan hartzen, etxeko lanetan egiten den lan produktiboak izugarriko balioa du eta oraindik ez da ordaintzen. Lan munduan ere, emakumeek lanpostu bera izan arren, lan kategoriatu txikiagoan daude ia enpresa guztietan. Hauek, gainera, justifi-

kazio gisa esaten dute, emakumeen lana ezberdina dela, edo denbora gutxiago daramatela lan horretan. Azken batean, emakumeen lana gutxiago baloratzen da. Gainera, lan prekarioetan ere emakumea aritzen da.

Beraz, bizi dugun berdintasun egoera hau, itxurakeria besterik ez dela uste al duzue?

Eider Elduaian: Bai, berdintasun formal bada dago, baina hori ez da erreala.

O. L.: Beraz, kontzientziazio hori bultzatzen dugu, parekidetasun batera iristeko. Parekidetasuna diogu, eta ez berdintasuna, gizonen berdintasun ez baitugu izan nahi. Pareko eta kide izan nahi dugu. Aukera eta eskubide berdinekin, baina ez berdintasun. Hala, kontzientziazio lana, parekotasuna lortzeko eta parekidetasun batera ailegatzeko. Azken batean, gure helburua da Euskal Herri parekide bat sortzea.

E. E.: Eremu guztietan txertatzea ikuspegi feminista. Bai lan munduan, politikan, kulturaren, hezkuntzan. Jendarteko eremu guztietan. Esaterako, emakumea lan munduan sartu dela badirudi ere, "lanpostu feminizatuetan ari da: hezkuntzan, zerbitzuetan eta zaintza lanetan.

Euskal Herri mailan, nola zaudete antolatuta?

O. L.: Sektoreetan banatuta gaude,

eta hauetako bakoitzak lan zehatz bat egiten du. Bilgunea erakunde nazionala da, Euskal Herri guztian dagoena. Guk Euskal Herri parekide baten alde egiten dugu. Eskualdeka banatuta gaude eta bakoitzean, talde motorra izango litzatekeena dago batetik, eta bestetik, emakume sareak. Hauek, proiektuarekin bat egiten dute, nahiz eta militantateak ez izan. Emakume hauek, beste erakunde batzuetan ere badaude, eta hauetan feminismoa txertatzen ere lan egiten dute. Honez gain, eskualdeetakoak biltzen gara Bilgune Nazionalan. Hemen, Euskal Herriko kide ezberdinek hartzen dute parte, eta azkenik, sektoreak daude. Hauek dira, ekonomia, kultura, hezkuntza eta komunikabideak. Honez gain dokumentazio sail bat ere bada dago.

Gizonezkoek parte hartzen al dute zuen erakundeetan?

O. L.: Gure erakunde feminista da eta bertan emakumeak bakarrik

Gizonen pareko eta kide izan nahi dugu. Aukera eta eskubide berdinekin, baina ez, berdinekin

daude. Jende askok hau ez du ulertzen. Guk badakigu, jendarte parekide bat eraiki behar dugula, gizon eta emakumez osatua. Badakigu ere, gizonen lan handia egin behar dutela borroka honetan. Baina gizonen beste eremu ugari ere badituzte lan egiteko, eta hau, gurea da. Langileen borroketan langileek diharduten bezala, ikasleentan,

ikasleek jarduten duten bezala, edo gay eta lesbianenetan, beraiek diharduten bezala, emakumeen borrokan, emakumeok egin behar dugula. Beraiek jakingo baitute inork baino hobeto, noiz dauden zapalduak.

E. E.: Gizon batek ulertu dezake edo ez, baina ez du bere azalean bizitzen.

Nola lor daiteke, beraz, gizonak ere kontzientziazioa?

O. L.: Emakume sarearen bitartez, bakoitzak bere eremuan egiten duen lanarekin.

E. E.: Kontzientziazio lana emakume nahiz gizonengan egin behar da.

O. L.: Batez ere emakumeengan egin behar da kontzientziazio lan hori, emakumeen kolektiboak zapaldua dela sentitzeko.

Zer da zailagoa, emakumeak edo gizonak kontzientziazioa?

E. E.: Azken batean, urteetan indarrean dauden eskemak apurtzea da, emakume nahiz gizonengan. Jendarte patriarkal batean bizi gara eta horrek bere ondorioak dauka bizitzako eremu guztietan, eta pertsona ororenengan. Horregatik, nahigabe bada ere, hori txertatuta daukagu. Gauza da horri buelta ematea.

O. L.: Nik uste emakumeak kontzientziazioa errazagoa dela, honek bere larrian jasaten baitu. Lan munduko diskriminazioaren kasuak esaterako, emakumeak izateagatik soilik, oztupo ugari jartzen dizkiete lanegietan.

Egitura patriarkal batean bizi gara. Defini ezazu hori.

E. E.: Gure ustez indarkeria sexista

ondorio bat besterik ez da. Bizi garen jendarte honetan, gizon eta emakumeen arteko harremanak goitik beherakoak, eta behetik gorakoak dira. Ez dira horizontalak, erabat jerarkikoak dira. Hori zergatik? Bizi garen sistema honek bideratzen gaituelako horrelako harremanak izatera. Horrek ez du esan nahi beti horrela izan denik. Esate baterako, Euskal Herrian, garai batean, sistema matriarkal batean bizi izan ginen. Patriarkalismoa kapitalismoarekin lotuta

Kapitalismoak barnean darama patriarkala izatea. Produktzioaren arabera kideak

dago, eta horrek bideratzen du harreman mota batzuk izatera gizon eta emakumeen artean. Harreman horiek, guk ulertzen ditugu, direla, botere harremanak, goitik behera, eta behetik gora egindakoak. Zein, honek ekartzen duen ondorioetako bat den indarkeria sexista.

O. L.: Eiderrek ongi azaldu bezala, zapalkuntza egiturazkoa da. Horrek ez du esan nahi gizon guztiak matxistak direnik. Kapitalistak barnean darama patriarkala izatea. Produktzioaren arabera kideak da.

E. E.: Esaterako, etxeko lanak egi- teak ez du dirurik ematen.

O. L.: Gizonak ekoizten duen bitartean, erosoagoa da emakumea etxean edukitzea lanean, honek, gero, gizarte segurantzaz ordaintzen ez badu ere. Askozaz ere garestiagoa da ama bat lanean edukitzea.

E. E.: Bizi garen sistema kapitalista eta patriarkala da, eta honek, bizi- rauteko harreman mota eta balore mota batzuk.

Indarkeria sexistaren arazoaren erroa, sistema patriarkala dela uste duzue beraz.

O. L.: Bai, sistema patriarkala eta honen ondoriozko matxismoa. Indarkeria emakumeek jasaten dute eta hau matxismoagatik dago.

Eta zein uste duzue dela konponbidea?

E. E.: Gizon eta emakumeen arteko harremanak aldatu beharra daude. Eskubide eta aukera berdintasunean oinarritutakoak izan behar dute.

O. L.: Gizon eta emakumeen arteko harremanetan iraultza bat eman beharra dago. Arazoa sustzietatik aldatu beharra dago, eta ez adabakiak jarri bakarrik. Esaterako etxeko lanetan, zaintzan, sistema publiko bat bultzatu behar litzatekeela uste dugu. Nahiz eta osoko izan, emakumeek etxeko lanen pisua zerbait behintzat kentzeko.

E. E.: Guk ez dugu gizonen tokia hartu nahi, hori ez dugu aldarrikatzen. Berdinak ez gara inoiz izango, baina behintzat parekotasun bat egotea nahi dugu.

E Elkarrizketa

TXEMA ARMENTIA Mahai tenis jokalaria

Villabona » «Kirol honekiko dagoen afizioa dela eta adin guztietako jendeari zuzenduriko eskola irekitzea izango da gure hurrengo helburua», dio Txema Armentiak

LEIRE GOROSTIDI

Txema Armentia (Donostia, 1959) 10 urtez saiatu da mahai tenisa bulztatzen eta hau ezagutarazten. Hermanin hasitako lanak Villabonan jarraitzen ditu orain dela 3 urtetatik. «Horrelako kirol batean, jendearen parte-hartzea ezinbestekoa da».

Noiz sortu zen taldea?

Kluba orain dela hiru urte federatu zen organizazioak derrigortzen zuen gutxiengo jokalaria kopururakin; bost fitxa eta delegatu bat. Usabal ireki artean, Villabonako Olaederran eta Tolosako Laskorain ikastolan entrenatzen ginen.

Etengabeko hedakuntzan diharduzue, ezta?

Bai horrela da. Lehenengo urtean bost hasi ginen eta bigarren etaberraldian aldiz hamar jokalariek hartu zuten parte. Aurreko urteko kopurua bikoiztuaz, aurtengoan, adin guztietako hogeit lagunek osatzen dugu Olaederra Mahai Tenis Kirol Kluba. Argi ikus daiteke, geroz eta indar gehiago hartzen ari garela.

Gaur egun non burutzen dituzue entrenamenduak?

Villabonako eta Tolosako kiroldegietan. Ez da erraza izan lekutxo bat izatea eta gutxiago jendeak gu aintzat hartzea, halere esfortzu handiari esker, Usabalen, mahai tenisari zuzenduriko gela bat izatea lortu dugu, partida ofizialak bertan jokatzeko ditugularik...

Ba al duzue diru laguntzarik?


Laguntza Instituzionalez gain, Villabonako Kirol Patronatuak ere diru laguntzak ematen dizkigu. Halere, hauek nahikoak ez izanik, jokalaria federatuek hilabeteroko kuotak ordaindu behar izaten dituzte, aurrera egin ahal izateko.

Zenbat talde bereizten dira klubaren barnean?

Hiru talde ari dira liga ofizialeetan. Bakar bat Bigarren Maila nazionalen eta beste biak hirugarrenean. Bigarren Mailan diharduten bost tolosarrekin mailaz igotzea lortu zuten iragan urtean eta nahiz eta klub barnean egon Usabal Mahai Tenis Tolosa izena erabiltzen dute.

Zein da mailaz igotzea lortu dutenen helburua?

Aurtengoan maila mantentzea izango da. Lehen lau partidak galdu dituzten arren, mailari tamaina hartzea eta emaitzak aldatzea espero dut. Azken bi partzak ekidindu behar dira hirugarren mailara ez jeisteko.



L. GOROSTIDI

«Mahai tenisak geroz eta indar handiagoa du Tolosaldean»



Umeek ba al dute lekurik klubean?

Bai, noski. Eskola Kirolari esker, geroz eta partehartze handiagoa dago gaztetxoenen artean. Ekin-tza desberdinak prestatzen ditugu mahai tenisa ezagutu eta hau praktikan jartzeko. Alde batetik, Usabal Kiroldegian burutzen diren jardunaldi bereziak daude eta ordu terdiz, mahai tenisaren funtsa irakasten da. Bestalde eta kasu honetan asteroko entrenamenduak burutuaz, partehartzea deritzogun taldea dago. Ikastolan izena eman ondoren, zonaldeko sei edo zazpi konpetizioetan parte hartzeko prestatzen ditugu.

«Pilota 180 kilometro orduko abiadurara hel daiteke. Kontzentrazioa beharrezko faktorea da»

«Mugimendu berdinak lantzen ditugu kolpeak zehaztasun osoz egin ahal izateko»

«Joko espazio mugatua izan arren, partidetan kilometro asko egiten ditu kirolariak»

Zein da ping pongna eta mahai tenisaren arteko desberdintasuna?

Ez dute zerikusirik: ping pongna etxeko mahaian edo lagun artean egiten dugun jokoa deritzogu eta helburua, pilota beste aldera igarotzera mugatzen da. Mahai tenisa aldiz, azkartasun, kontzentrazio eta teknikatutasun handiko jarduerak da. Kirol olimpikoa izanik, erreglamentazio zehatza bete behar da.

Zer nolako harrera du mahai tenisak Tolosan?

Ezin hobea. Tolosan ping pongnean jolasteko afizio handia dago. Kiroldegia ireki zenetik beti ari da norbait jolasten.

Nola bizi da mahai tenisa Euskal Herrian?

Uste dena baino indar gehiago duen kirola da. Gipuzkoako taldeak potentzi bat bilakatu dira bai Euskal Herri eta baita Estatu mailan ere. Katalunia eta Andaluziaren atzetik euskal taldeak dira indatsuenak.

Zenbat talde daude Euskal Herrian?

Hamalau talde ari gara liga nazionalen jolasten.

Proiektu berririk bai?

Adin desberdinetako jendeari zuzenduriko mahai tenis eskola sortzen saiatu gara baina desinformazio arazoengatik ez da talderik sortu. Berriz ere bulztatuko dugun proposamena izango da.

Zer behar du mahai tenisak ezaugarria izateko?

Ikus entzunezko komunikabideetan duen proiektzioa zabaltzea. Komunikabideetan agertzen ez denak ez du lekurik jendearen egunerokotasunean.



Txotxongiloen festa ere Albizturren

ALBIZTUR ● Txotxongilo festa egin zuten atzo Albizturren. Herriko nahiz kanpoko 50 haur inguru bildu ziren. Hasteko, Asbinenea antzerki taldekoek txotxongiloak egiten erakutsi zieten. Askok bat baino gehiago egin zituzten, eta denak etxera eramane zituzten. Ondoren, *As to bat hipodromoan* antzerki saioa hasi aurretik txokolatada izan zen. Egunari amaiera emateko, helduak nahiz haurrak Arkaitz elkartean bildu ziren, gaztain-jatea egiteko. **ESTI EZEIZA**



Loatzok Santa Zezili eguna ospatu zuen atzo

ADUNA ● *Santa Zezilia ospatzen dugu/aurtengo honetan Adunan/Loatzoko eskola gidari dala/ giro onean pasa dezagun/baita umore onean.* Horrela zioen atzo Adunan agurreko bertsoak. Herria musikaz jantzi zen goizean, izan ere, herri ezberdinetako Loatzoko Musika Eskolako ikasleak bertan bildu ziren akordeoi, trikitixa, pandero, tronpeta eta abar eskuetan zituztela. Hauekin, gura-soak ere jendez bete zuten Aduna herria. **ASIERIMAZ**

Zabalik ditu ateak dagoeneko txotxongiloen festa erraldoiak

Tolosa » Atzo inauguratu zuten Titirijai 07, Udaleko, Eusko Jaurlaritzako eta Txekiako ordekariekin eta jende ugariarekin

INIGO TERRADILLOS

Zabalditu ditu ateak dagoeneko aurtengo txotxongiloen festak, hau da Titirijai 07k. Ez edonola gainera, jendetza ugari izan baitzen, lehendabizi udaletxeko gelan eman zuten azalpenean, eta ondoren, Aranburu jauregiko erakusketan eginiko bisitan.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Miren Azkarrate Eusko Jaurlaritzako bozeramailea, Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari eta Txekiar Errepublikako enbaxadorea izan ziren aurkezpenean. Bildarratzek une oso polita dela azaldu zuen: «Titirijai 07ri hasiera emango diogu, eta horretaz gain, pozgarria da ikustea jadanik hasi dituztela Tolosako Nazioarteko txotxongilo zentroko obrak». Era berean, Ana Arretxek eskertu egin zuen Titirijai egiteko laguntza ematen duten guztiei eta denak gonbidatu zituen Aranburu jaure-

giko erakusketa ikustera, «bentan harrিতa geratuko baitzarete, oso polita baita».

Bere aldetik, Txekiar errepublikako enbaxadoreak ohore bat dela Titirijai Txekia aukeratu izan lurralde bezala esan zuen; «aurten 25 urte betetzen ditule akontuan hartuta, oso pozgarria da; Txekiar Txotxongilora Leihoa erakusketa oso berezia da, eta XVIII. mendetik hasi eta gaur egunera arteko gure lurraldeko kultura laburbiltzen du», azaldu zuen.

Erakusketara bisita

Behin egin beharreko aurkezpenak egin da, udaletxeko gelan bildu zen jendetza, bertakoak nahiz lurralde askotatik etorritakoak, Aranburu jauregira abiatu ziren, bertan zain baitzuten ikuskizun paregabea. Jauregian sartu bezain pronto beste mundu batera sartu balira bezala sentitu ziren guztiak, txotxongiloek harrিতa. Atzo izan zen inaugurazioa, eta gaurtik herriar orok izango dute bisitatze aukera.

Erakusketaz gain, gaur ere izango dira ikuski zunak, hain zuzen ere, bost herriko txoko desberdinetan.



Antolatzaileak eta erakundeetako ordezkariak, atzo, inaugurazioan. I.T.



Jende ugari gerturatu zen Aranburura. Guztiak txundituta geratu ziren. I.T.



Gaztetxoek ere ederki pasa zuten txotxongiloak ikusiz. I.T.

» EGITARAUA

Azaroak 25, gaur

■ **Leidor antzokia.** 17:00etan, Mancomio mulecos-en (kolombia) *Ricitos de oro*.

■ **Gorosabel auditorioa.** 12:00etan, 17:30ean eta 18:30ean izango da, Gar produkzioak-en (Euskal Herria) *Txo itxoin* ikusgai.

■ **Ferialekua.** 18:00etan Divadlo Alfa taldearen (Txekia) *Los tres mosqueteros*.

■ **Kultur Etxea.** El retal taldearen (Madrid) *El enamorado y la muerte* ikusgai.

■ **Beotibar pilotalekua.** 17:30ean eta 19:30ean ziango da, Cia. Nal de Hanoi-ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.

Azaroak 26, bihar

■ **Leidor antzokia.** 12:00etan eta 15:00etan, Drak taldearen (Txekia) *Flying babies* ikuskizuna izango da.

■ **Gorosabel auditorioa.** 09:45ean eta 10:30ean, Gar produkzioak-en (Euskal Herria) *Txo itxoin* ikusgai. 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, Atelier 313ren (Bulgaria) *El baron de Munchausen* ikusgai.

■ **Ferialekua.** 11:00etan eta 15:00etan izango da ikusgai, Divadlo Alfa taldearen (Txekia) *Los tres mosqueteros*.

■ **Kultur Etxea.** 10:30ean, 15:00etan ta 18:00etan izango da, La Chana taldearen (Salamanca) *Vulgarcito* ikuskizunaz gozatzeko aukera.

■ **Beotibar pilotalekua.** 17:30ean eta 19:30ean izango da ikusgai, Cia. Nal de Hanoi-ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.

■ **Kasinoa.** 20:30ean eta 22:30ean izango da ikusgai, Teatro Haraporen (Argentina) *Amorato* ikusgai.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Tolosan, arratsaldetan bi haur zaintzeko pertsona behar da. 630 98 43 00.

SALGAI

■ **Autoa.** 206 GTI. 4 urte. 7500

euro. Aukera bikaina. 656 4102 80.

BESTERIK

■ **Zakurkumea.** Border Collie baten kume emea oparitzen da. 658 70 59 12.



Zanpantzarrak atsedean hartzen, kupeletik ez oso urrun badaezpada, atzo ospatu zen Ikaztegietakako Euskal Jaian. A. IMAZ

Haurrak dantzari, janaria eta edaria denentzat eta zanpantzarrak Euskal Jaian

Ikaztegieta » Euskal Jaia antolatu zuten atzo lehen aldiz eta herritarrek «gustura» agertu ziren artzain-andrez jantzita

ASIER IMAZ

Ikaztegieta lehen aldiz antolatu dute Euskal Jaia, eta berau atzo egin zuten. Herritarrek zeruari begira egon ziren arren une batzuetan, «gustura» agertu ziren. Feria izan zen goizean goizetik bilgune eta bere inguruan burutu ziren ekitaldigehienak.

Artzain-andrez jantzita

Ikaztegietakako artzain-andrez jantzita jeitsi ziren herririko plazara. 11:00etan postuak ireki zituzten, baita erdian kokaturik zegoen sagardo kupela ere. Ondoren, txalaparta doinuek deialdia herri guztira zabaldu zuten. Ohean norbait oraindik zalantzan aurkitzen bazen edo, zanpantzarrak bidali zituzten herri guztian zehar Euskal Jaian parte hartzeko gonbita luzatzeko asmoz.

Egurdian, berriz, herriko dantzari txikiak saioa eskaini zuten. Independentzia jartzen zuen pankartaren aurrean, izan ere hainbat herritarrek, ANV-EAEk deitutako Independentzia Egunarekin modu horretan bat egin nahi izan zuten.

Janari eta abereak

Feria bat ez da ezer janari eta abereak gabe, hori pentsatu behar izan zuten antolatzaileek Euskal Jaia antolatzerako garaian. Gauzak horrela, Ikaztegietakako plazan bietatik aukera ugaria izan zen, dastatzeko eta ikusteko, noski.



Amezketan, Aldarria eskuetan, Independentzia Eguna ospatu zuten. A. IMAZ

Independentzi Eguna hainbat herritan ANV-EAEk deituta

Politika » Amezketan mendi martxa egiten ari zirela, Larraitzen Guardia Zibilak hiru lagun identifikatu zituen

A. IMAZ

ANV-EAEk deituta, Euskal Herriko herri askotan bezala, gure eskualdeetako hainbat herritan Independentzi Eguna ospatu zen atzokoan. Herri guztietan lelobera errepikatu zen, «euskaldunok baditu inoiz baino arrazo gehiago independentziaren aldeko apustua egiteko».

EAEren Aldarria eskuetan

Izan ere, atzokoan ANV-EAEk elkarrekin Aldarria eskuz eskuz ibili zuten Independentzia Eguna ospatzera hurbildu ziren herritarrek. Bertan, ANV-EAEren ikuspuntutik herri honen historia eta etorkizunerako bidea aurkitzen dira. «Independentziak izan ginen Nafarroaren izenpean, indarrez Estaturik gabe eta zatiturik utzi gintuzten arte. Gerora, foruak izan ziren gure askatasunaren hondarrak, baina horiek ere gehiegizkoak iruditzen zitzaizkien. Frantziar eta espainiar estatuetan murgiltzea da nahi zuten eta nahi duten bakarra». Gaur egun berriz, «erabakitze ahalmena bermatzen duen autonomiari ere ezezkio eman diote, aspaldiko gatazka honi konponbide politikoa emateko aukera historikoa zapuztuz». Honen harira, EAEren Aldarriak,

EAJ eta Nafarroa Bai alderdiak PSOEn bidelaguntzat jotzen ditu; «PSOek bidelagun ederrak topatu ditu: EAJ eta Na Bai. Hauen lehentasuna ez da Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideak bermatuko dituen marko demokratiko bat eraikitzea», Euskal Herriari «orain dela 30 urte egin bezala, iruzur berri bat egin behar badie, ez dute inolako eragozpenik».

Etorkizunerako erronka, independentziaren bidean denak elkartzea dela aipatzen du Aldarriak. «Independentzia dugu helmuga. Eta gure ustez, bidea elkarrekin egin beharko genuke independentziaren alde gauden guztiok». Topagune bezala, EAEk aurkeztu zuen manifestua aldarrikatuta zuten, *Guk, Euskal Nazioa, Independentzia* hain zuten ere.

Guardia Zibila Larraitzen

Bi eskualdeetako hainbat herritar atzo kalera irten ziren Independentzia Eguna ospatzeko asmoz. Ibarren Aldarriak banatu zituzten egurdian, Tolosangertatu zen bezala. Villabona, Asteasu eta Zizurkilek bat eginik ospatu zuten berriz atzoko eguna. Amezketan Guardia Zibilaren presentzia izan zuten, izan ere, Esteban Nieto eta Joxemi Zumalaberen omeneko zuhaitzak ikustera zihoazela hainbat herritar, mendi martxan, Guardia Zibila «zain» zutela jabetu ziren Larraitzen. «Hiru lagun identifikatu zituzten eta 30 minutu bertan egon ondoren, elkarretaratzea egiteko herrira jeitsi gara».



Ibarren ANV-EAEren kartelak eta eskuorriak banatu eta jarri zituzten. A. IMAZ



09°
06°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. OSTARTEAK
BEROENA 11°
HOTZENA 6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak etxeko bi bihurriei!

Beñatek (Asteasu) gaur bi urte, eta **birraitona Mielek (Tolosa)**, berriz... Jarraitu horrela urte askoan!



Urte askoan!

Handitan izan nahi zenuena erakutsi zenigun, lortu duzu. Zorionak, mende laurdena bete duzu eta.

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** Bigarren eskuko mendi-ko materialaren merkatu txikia Oargi elkartearen. Gaur, 16:00etatik 20:00etara, eta astean zehar, 18:00etatik 21:00etara. Argazki lehiaketako argazkiak ere ikusgai daude.

Zinema

■ **Villabona.** *El orfanato* filma, gaur, 19:30ean, eta bihar, ikuslearen eguna, 21:30ean, ikusgai, Gurea aretoan.
■ **Villabona.** *Azur eta Asmar* gazte-txoentzako filma, gaur, 17:00etan, Gurean.
■ **Tolosa.** *Supersalidos* pelikula izango da ikusgai, Bonbereneako

zine-klubaren baitan, 17:30etik aurrera.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1.943 67 36 49.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43.112.

Bihar

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.943 67 09 15.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZ Aren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZ Aren egoitza Leitza: Udaletxeke bulegoa

agurrak

“Natura bezain eraginkorra”



PEUGEOT 308 berria



TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com



Izurako udala

Biolentzia generikoaren aurka

Mikel goi aingeru plaza, 1 **943 69 13 33**

943 673 827

**Ibarrako udala
biolentzia generikoaren
aurka**

Ibarrako udala • Euskara zerbitzua

txokoa **h**

ZOKETA
Hegaldia
+
egonaldia
+
futbol partidua

2 pertsonentzat

- HEGALDIA
- BI GAUERAKO HOTELA
- LIVERPOOL / BOLTON WANDERERS partidurako sarrerak Liverpoolleko Anfield estadioan **abenduak 2an** Gainera, Xabi eta Mikel Alonso tolosarren kamiseta bana!



Irabazlea:

• Mikaela Goikoetxea (Tolosa)

